

## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK:**

Bezeroarekiko harremanak definitzen du nola erakarriko, zainduko eta handituko duzun zure bezero-zorroa. Bezeroekiko lotura kanal espezifiko batean oinarritzen da; beraz, gure ideia nagusia chat bat sortzea bezeroekin harremanetan jartzeko da.

Plataformaren chat-a sortzeko aplikazio bat erabiliko dugu. Chat-a webgunearen barruan egongo da eta oso erraza izango da bezeroentzat bere iritzia ematea, laguntza eskatzea, beste bezero batzuekin edo gurekin harremanetan jartzea... KOMMO izango da erabiliko dugun aplikazioa, bai ordenagailu bai mugikorrekin erabilgarria delako.

Oraindik denda fisikorik ez daukagunez bezeroa webgunetik erosi beharko du. Webgune gehienak autozerbitzu bezala funtzionatzen dute baina gure webgunean bezeroa gure laguntza eta asistentzia izango ditu.

Gainera, kritikak jasotzeko atal bat izango dugu non produktua jaso eta gero hobekuntzak gomendatu ahal izango diren, honen helburua izango litzateke esperientzia lortzea gure akatsetatik edo inperfekzioetatik ikasiz.

Bezeroarekiko atentzio maila handia lortzeko, plataformaz gain, non txateatu ahal izango den, telefono zenbaki bat izango dugu, horrela, bezeroak ahozko kontakua izan dezake gurekin tratatu gizatiarrago bat lortuz.

Beste ekimen bat izango litzateke sare sozialetan garatzen garenean arropa zaleen meetingak edo azokak antolatzea. Non pertsona bakoitzak bere arropa erakutsi, gomendatu, saldu edo trukatu ahal izango duen nahi izanez gero.

Azkenik, arropa berria ekarriko dugu astero horrela bezeroak fidelizatuko ditugu eta gure dendan edo webgunean asko sartuko dira arropa berria ikusteko.